

# 8M

DIA INTERNACIONAL DE LA DONA TREBALLADORA  
DÍA INTERNACIONAL DE LA MUJER TRABAJADORA  
DÍA INTERNACIONAL DA MULLER TRABALLADORA

**EMAKUME  
LANGILEAREN  
NAZIOARTEKO  
EGUNA**

**ZUGATIK,  
GUGATIK,  
EMAKUME  
GUZTIONGATIK!**



@CGT

rojyonegro.info

www.cgt-lkn.org

Lanaren  
Konfederakunde  
Nagusia



## 2019KO MARTXOAREN 8A. EMAKUME LANGILEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

### ZUGATIK, GUGATIK, EMAKUME GUZTIONGATIK!

“Gu gabe munduak ez du funtzionatzen”, “Gu gabe ez dago ez produktorik ez erreproduktorik”, “Mundua gelditu nahi dugu”, “Bizitzeko greba, geure buruak zaintzeko greba” lelopetan, Mugimendu Feministak gizarteari helarazitako deialdiari jarraiki, iazko martxoaren 8an 24 orduko lan, kontsumo, zaintza eta ikasketa Greba Orokorra burutu genuen.

Lehenengo ilaran eta espazio publikoa okupatuz gertaera garrantzitsu honetan milioika emakume protagonista izan ginen, atzerabueltarik ez duen aurrerapauso nabarmena emanez. Halaber, gertaera historiko hau aspalditik anarkofeminismotik borrokatzen dugun **“Sozialki berdinak, gizalegez ezberdinak eta erabat askeak izateko mundu bat”** eraikitzeko, emakumeok lantzen ari garen erabateko askapena eta berdintasuna lortzeko prozesuan kokatzen dugu. Orokorrean 2018an zehar justizia patriarkalaren aurkako, abortuaren despenalizazioaren aldeko, sexu indarkeriaren kontrako eta indarkeria matxista oren kontrako mobilizazioak jazo egin dira, nazioarteko borroka geldiezin bat eraikiz.

**2019ko M8 honetan** argudio eta oinarri antipatriarkalak, antikapitalistak eta antiarrazistak gureak eginez berriz ere 24 orduko **Greba Orokorrean** parte-hartzeko deialdia zabaltzen dugu. Deialdi hau sistema neoliberal, kapitalista eta patriarkalaren kontrakoa da, hurrengo lau ardatzetan oinarritzen dena, hain zuzen ere:

- Esklavo gisara zapaltzen gaituen sistemaren produkzioa geldiarazteko **Lan Greba**.
- XXI. mendeko globalizatutako kapitalismoaren ezinbesteko elementuaren Kontra jotzeko **Kontsumo Greba**.
- Emakumeak modu otzan batean bigarren mailara, etxeko eta erreproduktzio lanetara baztertzeko kapitalismoaren eta patriarkatuaren konplizitatea salatzen **Zaintza eta Etxeko Lanen Greba**.
- Emakumeok indarkeria eta terrorismo matxista pairatzen dugun gizarte sistema baztertzailerik eta neketsua erreproduzitzearen arduraduna den hezkuntza sistema, ikasle mugimenduekin koordinatuz, geldiarazteko **Ikasle Greba**.

**2019 honetan**, argi eta ozen oihukatzen dugu, ez ditugula emakumeok lortutako eskubideetan atzerapausorik onartuko; ez dugula patriarkatuak, erdi aroko estremismo politiko eta erlijiosoaren itxura hartuta esparru laboralean, ekonomikoan eta sozialean modu zigorgabe indarkeriaz jokatzeko jarraitzea onartuko; ez garelako erailketa eta indarkeria matxisten aurrean erantzunik gabe makurtuko eta ez dugula amore emango.

### PATRIARKATUA SUNTSITU

**Berdintasunaren alde, indarkeria matxisten eta emakume eta gizonen arteko berdintasun ezaren kontra**